

BIDE OTSAK

Aragizko biotzak
buztiñezko munduan,
bide otsak

urrutiko galduan.

Pakea! pakea!

eriotzaren barruan.

Autsari loturik

bizia ameslari.

Bekaizkeri, aragikeri,

andikeri, mundukeri...

Zipres beltzak

illobi zaindari.

Otsalar

EUSKALDUN BIZI NAIA

(Otaño'n *Aita-semeak*'ren doiñuz)

Euskaldun bizi naia,	Gure salatzaileak
barne-muiñen bultzez,	anaiak odolez,
giroak dakarkigu	gorrotuzko griña ta
deika oiartzunez.	biotzak utsunez.
Gogoak nekaturik	Oi! ze tristuragarri,
ainbeste samiñez,	ezpata zorrotzez,
ongi probatu dugu	onela arkitu bear au
ekaitza zigorrez,	elkar aurrez-aurrez,
illerriko ixilla	euskaldunak izanik
pakearen trukez.	Jaunagandik sortzez.

Otsalar